


# Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1995ko azaroaren 24a

\*



## Nafarroa, erreserba berezia

■ Nafarroako Gobernuak *Espacios naturales protegidos de Navarra* liburua kaleratu berri du. Egileak, Felix Armendariz Ingurugiro Saileko Naturaren Kontserbazio Zerbitzuko zuzendariak, Nafarroan dauden naturguneak jaso eta horiei buruz dagoen legedia az-

tertu du. Osotara 3 erreserba integral daude, 38 erreserba natural, 26 naturgune, 31 monumentu natural eta parke natural bakarra —Bertizkoa—. Gune haue-  
tan biltzen da fauna eta florarik aberatsena. Nafarroako lurraldearen % 1,21 hartzen dute. ■

### Mapa mutuak

PELLO LIZARRALDE



Gaurko egunean errege eta erreginen parekoak dira, baina orain dela ez hainbeste ia mutuak ziren. Onik onenean, eta askotan ahalegin handiak egin eta gero, segunduak edo minuak eginen zituzten gure aurrean; zorte pixka bat izanez gero autografoa. Gainontzeoak gure kontu zeuden, imajinatu egin behar izaten genituen. Horregatik eta horretarako sortu ziren kromoak. Eta kromoek ez zuten sekula hutsik eginen, erakusten zizuten irudia betiko geratuko zitzaizun gogoan, eta egiazko zein alegiazko balentrien oihartzunak gehitzen ziren neurrian miresmena ere mugarik gabe hedatuko zen.

Orduan mundu honetako pertsonariak nazkanteenetako bat iritsi eta mikrofonoaz jabetu zen. Kirol kazetaria temoso da, ezer ez den tokian ere urrea bilatu nahi duten horietakoa. Eta kirolariak erantzuten hasi ziren. Egun, politikoei bezainbat galdera egiten zaizkie, eta, jakina, azkenean eurek ere esatekorik badutela sinetsi dute. Atorrek bi edo hiru botoi izaten dituzte la-

xatuta eta urrezko lepoko lodi bat erakusten diote kamerari, «bai, egia esan...» eta antzeko formulak ikasi dituzte hasteko, «...irabazteko ahaleginak eginen ditugu», esanen digute bukatzeko.

Alfer-alferrik ari dira kazetariak. Kirolako profesionalari ez diozu sekula egoera sozial eta politikoaz iritzi interresgarririk aterako. Nahikari handiko kirolariak, nahi duena lortuko badu, ezin du dudarik egin. Atea, saskia, helmuga pankarta edota frontisa dute helburu, eta badakite zer har dezaketen han, munduan, bestaldean daudenengandik: txaloea eta ziztua. Gehienera jota, eta noiz edo noiz, partida benefiko bat. Hotzak bai, baina ez ankerrak. «Oso gauza polita da jendeari laguntzea», esaten dute kameraren aurrean, begirada han nonbait galduta.

Froga ugari dago. Kirolariak nekez betetzen dituzte aldizkariak proposatzen dizkieten galdetegi memeloenak ere. Kirolaria, profesionala den bitartean bederen, ez da sekula liburu, zine

edo bidaiazale izanen. Famako kirolari gehienei ehiza gustatzen zaie. Harresiaren bestaldean dagoenaz jakin nahian hasiz gero badakite labaintzeko arriskuan daudela, eta horrek lesioa ekar liezaioke.

Anbizio handiko kirolariari ez zaio komeni sentimenduen sarean erortzea, malenkoniak eta aldarteak hartuta egoitea. Laurent Fignonen karreraren gainbehera ttu egiten zuten unean hasi zen, George Bestena whiskyaz eta rock musikaz berdinduta zegoenean. Galtzen hasi ziren, eta galtzarekin batera harresiaren bestaldera iragan ziren, eta behin han ez zuten irabazleen mundura itzultzen jakin.

Beldurra diote zaintiratuari, baina izugarrigoa zaie mundu erreala ukitzeak ematen duen mina. Bakean utzi behar ko genituzke, jauzi eta laster egiten, jaurtitzen eta kolpatzen, baina mutu. Hori da behar dutena, hori da behar duguna. Urrunean hamalau izanen dira. Berriro ere kromoan garaian. Eta kromoekin ametsak. X

### Sport



ERAKUSKETAK

**Burlata:** Kultur etxean Catalina Elcano margolariaren olioak ikusteko aukera dago abenduaren 3a arte, 19.00etatik 21.00etara, astelehenean ezik. Igandeetan 12.00etatik 14.00etara egonen da zabalik.

**Tafalla:** Erakusketa aretoan 'HIESaren kontrako irudiak' izeneko erakustaldia antolatu dute. Nazioarteko hainbat artistaren 36 kartel ikusgai daude heldu den astelehenera arte.

**Barañain:** Kultur etxean txo-txongilo erakusketa antolatu dute. Abenduaren 1a bitartean egongo da zabalik, 19.00etatik 21.00etara arte astegun nahiz larunbatetan eta 12.00etatik 14.00etara jaiegundetan.

KONTZERTUAK

**Gares:** La Polla Records taldeak kontzertua emanen du bihar gaueko 12etan. Funda-mental aretoan. Kanta zaharrak ezezik, 'Bajo presión' disko berriko abestiak ere interpretatuko ditu talde ezagun honek. Sarrerak 1.200 pezeta balio du.

**Leitza:** Zazpi Eskaleko kideek kontzertua eskainiko dute gaur zinemaren, gaueko 10.30etatik aurrera. Emanaldia Leitza Euskara Zerbitzuak antolatu du.

**Iruñea:** Xavier Barok kontzertua emanen du Donegal tabernan heldu den ostegunean, gaueko 9etan.

BESTELAKOAK

**Burlata:** Nafarroako Euskal Kantu Txapelketako lehen kanporaketa izanen da bihar Elizgibela kiroldegian, arratsaldeko 5etan. Lizarra, Tafalla, Iruñerria, Sakana, Aezkoa eta Larraungo haurrak ariko dira.

**Txantrea:** San Cristobal parrokiaren Herri Meza euskaraz izanen da bihar arratsaldeko 6.30etan.

**Altsasu:** Koldo Ameztoi ipuin kontalariak haur eta gazteen zako saioa eskainiko du astelehenean ludotekan, arratsaldeko 7etan, Udalak eta Kima taldeak antolatutako euskararen astearen barruan.

ANTZERKIA

**Tafalla:** Geroa taldeak 'Las amazonas del caballo' antzezlan eskainiko du gaur Kultur Etxean, arratsaldeko 8etan. Sarrerak 300 pezeta balio du.

ZINEMA

**Figarol:** Udazkeneko Bira 95 egitarauen barruan 'Milagro en la ciudad' filma botako dute bihar dantza aretoan, gaueko 9etan.

**Tafalla:** 'El regreso del viento del norte' filma eskainiko dute bihar, arratsaldeko 6etan, eta etzi, 3.45etan. Ostegunean, berriz, 'Maité' filma botako dute Cinema Españolen, arratsaldeko 8etan eta gaueko 10.30etan.

**Altsasu:** Euskararen Astea egitarauen barruan 'Kareletik' filma botako dute asteartean liburutegian, arratsaldeko 7etan.

BERTSO SAIOAK

**Goizueta:** Xalto Sariaren finala ospatuko da 18.00etan. Nafarroako zortzi bertsolari gazte ariko dira buruz buru saio honetan.

GURE AUKERAK

nafarkronika

Alberto Barandiaran

Kangurua

Oilagorra ehizatza zatozenezan utzi kangurua esan zion Patxi Oiartzabal Baztango alkateak Lola Eguren Nafarroako Parlamentuko lehendakariari asteazkenean, Belateko tunelaren inaugurazio ekitaldian. Eguren esan, esan zion, baina kanguruak denek —politikariek, kazetariek— jaso zituzten etxerako, ez dakit Oiartzabalek horrela bultzatuta, gonbidatuta edo.

Ez dakit Lolak ehizan aritzeko zaletasuna ote duen, baina Patxiaren esaldian zerbait gehiago zegoela pentsatu nahi dut, chiza gora-behera, tunela zeharkatu eta Baztan bisitatzeko gonbidapen zintzoa zegoela irudikatu nahi dut, tunelaren irekiera ekitaldi sinbolikoa —tunela berez astebete lehenago zabaldu zuten— esanahi handikoa delako Baztan-Bidasoa osorako. Belateko lanek inguru honi egingo diote me-

sede. Ez da Nafarroako garraio-sare garrantzitsuenetakoa, ez du populazio handiko hiririk, ez da etorkizunera begira izugarritzko garapena aurrikusita duen alderdia. Iparra da, mendiek beti babestu eta baztertu egin duten zona, mendialdea hain zuzen ere. Oilagorra, ondoak edo gaztainak biltzeko, asteburu atseginerako plana, paraje idilikoa. Tunelarekin zerbait gehiago izatea nahi dute, ordea, baztandarrek, eta doneztebearrek, eta lesakarrek. Edozein kamioi-gidari aspertzen duen mendate baten ondoko alderdi itxia baino gehiago, muga fisikoak direla eta garapenerako trabak aurkituko ez dituen inguru bizia.

Guk hemen dugu kangurua, oilagorretara joaten garenerako baino Belatez bestaldeko lagunak bisitatzera joaten garenerako, paseoan edo lanera joaten garenerako. Portzierto hori-horia da, polit askoa.



asteko pertsonaiak



Juan Kruz Lakasta  
Kazetaria

■ Juan Kruz Lakasta EGUNKARIKO lankideak irabazi du Iruñeko Udalak urtero antolatzen duen egile berrientzako literatur lehiaketako bigarren saria, *Bagara ala ez* gara narrazio laburrekin. Nafarkariako zutabegileak Iruñeko kartzelan jaso behar izan du sariaren berri, hain baita joan den urtarrean intsumiso izateagatik sartu zutenetik. Narrazio laburren atalean Juantxo Urdironek eskuratu du lehen saria, *Herri fiction* lanarekin. Bestalde, Nafarkariako kolaboratzaile den Joxemiel Bidadorren *Garañoko gatazkaren bart bezperan* egin besta ixila-k irabazi du Iruñeko Udalaren olerkigintzako lehen saria.



Antonio Aragon  
Herrilaretako sailburu ohia

■ Nafarroako Gobernuak Herrilaretako sailburu ohiak behin-behineko baja eskañu dio PSN-PSOeri, alderdiari kalte handiagorik ez egiteko. Antonio Aragon eta Gabriel Urralburu PSNko idazkari ohia aurki auzipetuko dituzte herrilaren adjudikazioen truke diru komisioak jasotzeagatik. Sumarioan ageri denez, Aragonek hogeit hamar milioi pezetatik gora jaso zituen Huarte eta Lain enpresen aldeko adjudikazioengatik. Dirutza Suitzako kontu korronte sekretu batean sartu zuen. Aragonen eta Urralbururen aurkako frogak gero eta ugariagoak badira ere, PSNk ez ditu alderditik kanporatu. Azkenean Aragonek berak hartu du aurrea.

ahaztu gabe!



KONTZERTUA

**Berriozar:** Zarata Irratiak kontzertu erraldoia antolatu du asteburu honetarako. Hain zuzen ere, Su ta Gar, Def Con Dos, Exkixu, Piperrak eta Nahi ta Nahiez talde ezagunek joko dute Berriozarko pilotalekuan. Gaueko hamarretan hasiko da kontzertua. Gainera, autoa etxean utzi nahi dutenentzako, autobusak prestatu dituzte Zarata irrati arduradunek. Tresa Reyes hoteletik aterako dira 20 minuturo eta bederatzi terdietatik aurrera, gau osoan zehar.

Iruñeko Donibane auzotik aieratzen den Zarata irratiak antolatutako kontzertura joan nahi duenak, ohizko tokietan dauzka sarrerak salgai dagoeneko, hau da, Kilkir, Zurrunka, Katu, Ttanta, Herriko eta Toki Ederren, beste hainbat lekuren artean. Aurretik erosiz gero, 1.000 pezeta balio du Zaratak prestatutako kontzerturako sarrerak. Bihar bertan, ordea, kontzertua hasi aurretik eskuratuz gero, 1.200 pezeta balioko du sarrerak.

adi!

Euskalerrria Irratia FM 91,4

Egunero asteleheneetik ostiralera, Zokobetallu goizeko 10.00etatik 11.00etara.

Xorroxin Irratia FM 107,5

Egunero 20.00etatik 22.00etara Karakola segi hola gazteendako saioa.

Aralar Irratia FM 106,2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara, bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkarrizketak.

Karrape Irratia FM 107,8

Astean zehar, 12.20etatik 12.35etara Gauza guztien gainetik, edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak.



## Burlata

## Enrike Zelaiaren emanaldia gaur

Udalak antolatu duen Kultur Zikloan Amuriza eta Mañukorta ere ariko dira

**B**urlatako Udalak, urtero bezala, Kultur Zikloa antolatu du aurten ere. Asteazkenean abiatu zen Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoekin, eta gaur Enrike Zelaia soinu joleak emanaldia eskainiko du, arratsaldeko zortzietan. Altsasuarrak Baxenabarra disko berria aurkeztuko du Burlatako kontzertuan. Amuriza eta Mañukorta bertotan ariko dira gaur.

Erredakzioa / Iruñea

BURLATAKO UDALAK urtero antolatzen duen Kultur Zikloa joan den asteazkenean abiatu zen, Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoekin eskutik. Hilarion Eslava II kiroldegian aurkeztu zuten ikuskizuna. Gaur, berriz, Enrike Zelaia soinu jole altsasuarrak Baxenabarra bere azken diskoa aurkeztuko du, arratsaldeko 8etatik aurrera, Hilarion Eslava Kontserbatorioko auditoriumean.

Enrike Zelaiak berak Kultur Zikloaren aurkezpenean erran zuenez, «orkestra baten laguntzarekin Nafarroan ariko naizen lehen aldia izanen da hau». Altsasuarrak, hain zuzen, Ciclon taldearekin joko du eta soinu-efektu bereziak ere erabiliko ditu, «nik neuk asmatutako tresna batak sortuak». Zelaiaren emanaldiak ordu t'erdi inguru iraungo du eta Nafarroa Behereari eskainitako omenaldia izanen da, horixe baita, finean, *Zazpiak bat* bilduma osatu duen azken disko honen mamia.

Gaur ere, bestalde, Amuriza eta Mañukorta ariko dira buruz buru bertso afari batean, gaueko



Enrike Zelaia Burlatan ariko da gaur.

ARTXIBOKOA

hamarretan Axular elkartearen. Afaria 1.800 pezetakoa izanen da. Zumadi, Batzoki, Axular, Euskalerraña Peña eta Euskara Zerbitzuaren bulegoan eskura daitezke afarian parte hartzeko txartelak.

Afaltzen hasi aurretik, halaber, Xabier Amurizak *Bizkaiko bertso anonimoak* liburuaren aurkezpena eginen du. Bertsolariak lan han-

dia egin du azken urteotan Bizkaiko bertsolari eta kantugintzaren inguruan, gerra aurretiko 1.500 bat kopia eta bertso bildu baititu liburuan. Lan hau AEKren, Bizkaiko Bertsolari Elkartearen eta Bilboko Gabriel Aresti euskaltegiaren laguntzarekin kaleratu da.

Bihar, azkenik, Nafarroako Euskal Kantu Txapelketako le-

hen kanporaketa eginen dute Burlatan, arratsaldeko 5etan Elizgibela kiroldegian. Lizarra, Tafalla, Iruñerria, Sakana eta Larraungo haurrak izanen dira kantari.

Lehen saio honetan hamabost bikote, talde eta bakarlarik hartuko dute parte. Hurrengo saioa Leitzan izanen da, abenduaren 2an. X

## Igantzi

## Kultur Egunak martxan

■ COFESi buruzko hitzaldi batekin hasiko dira

Erredakzioa / Iruñea

IGANTZIKO Euskara Batzordeak, Igantziko Udalak, Biltoki elkarteak eta Igantziko abesbatzak antolatuta, Kultur Egunak ospatuko dira datozen egunotan herrian. Egitaraua gaur bertan hasiko da, arratsaldeko hiru t'erdietan. Ordu horretan, hain zuzen, COFES-HAIZEA: emakumearen harrera zentroa izenburupean hitzaldia izanen da Igantziko Biltoki elkartearen egotzian. Halaber, arratsaldeko zazpitan, COFES-HAIZEAren gai berari helduta, gazte programa izanen da aztertuko duten auzia. Biltoki elkartearen ere.

Bihar, berriz, Auskalo taldea-

ren eskutik haurrentzako tailerak izanen dira herriko plazan, arratsaldeko lauretatik aurrera. Gaueko bederatzieta, berriz, Landarbaso abesbatzak bere emanaldia eskainiko du herriko elizan. Igandean, bestalde, egun guzian zehar Biltoki elkartearen ikusgai izanen den eskulan eta laboreen erakusketaz gain, pilota partiduak jokatuko dituzte eguerdian eta arratsaldeko zazpitan, berriz, Koldo Ameztoi ipuin kontalariak hamaika istorio bitxi kontatuko ditu Biltokin bertan.

Arratsaldeko zazpitan, azkenik, eltzaur jatea eginen dute. Bertsolariak egonen dira giroa alaitzeko. X

## Gares

## Euskararen Kultur Astea

■ Euskara Zerbitzuak prestatu du laugarrenez

Erredakzioa / Iruñea

EUSKARAREN IV. Kultur Astearen barruan gaur egingo da lehen ekitaldia. Arratsaldeko zazpi t'erdietan, euskaraz ikasten duten seme-alabak dituzten guraso erdaldun mintzatuko da Joseba Barriola udaletxean. Bihar, berriz, leku berean, Bittor Aiape musikari gazteak emanaldia eskainiko du arratseko zortzietatik aurrera.

Astelehenean abiatuko dira berriro Euskararen IV. Kultur Astearen barruan Udalak prestatutako ekitaldiak. Arratsaldeko bostetan, Txirristra antzerki taldeak *Basoko sasieta* gose euskarazko ikuskizuna aurkez-

tuko du Garesko Eskolan. Biharamunean, azaroaren 28an, *Euskarazko komunikabide idazkiak*. EGUNKARIA eta herrietako aldizkariak lelopean maingurua izango da arratsaldeko zortzietan. Pello Argiñarena, Martin Mariezkurrena eta Alberto Barandiaran hizlarien eskutik.

Asteazkenean, arratsaldeko zortzietan, mintzaldia eta diapositiba emanaldia izanen da udal txeko erabilera anitzeko gelan, Euskal Herriko artzainei buruz. Abenduaren 1ean, azkenik, gaueko bederatzieta, *Murugarren Garesko Murugarren Garesko euskarazko aldizkariaren aldeko afaria* eginen dute. X

## Tafalla

## Hirugarren munduaren aldeko elkartasun zikloa datorren astean

■ Tafallako % 0,7 batzordeak antolatu du

Erredakzioa / Iruñea

TAFALLAKO % 0,7 Batzordeko kideek hirugarren munduarekin elkartasun eta topaketa astea aurkeztu dute aste honetan. Prestatu dituzten ekitaldiak datorren astelehena eta igandea bitartean ospatuko dituzte.

Astelehenean, hain zuzen, *Hirugarren munduarekin elkartasuna* lelopean antolatutako erakusketa zabalduko dute Kultur Etxean, asteari hasiera emanez. Egun berean, emakumeari buruz Txinan burutu zuten batzarrari buruz mintzatuko dira Silvia eta Blanca Fernandez. Gizarte Ikasketarako Talde Eragileko (GITE) kideak.

Asteartean, berriz, giza eskubideen egoera hirugarren munduan zein den aztertuko dute mahainguruan. Kultur Etxean izanen da hitzaldia eta bertan egonen dira gai honi buruz hitz egin asmoz, Rodolfo Izal Chiapastik bota zuten apez atarrabiarra eta Manuel Corroza Amnistia Internacional elkartearen kide nafarra.

Antzerkiak eta musikak ere izanen dute lekurik Tafallan antolatu duten aste honetan. Asteazkenean, hain zuzen, Iruñeko Oscar Romero Batzordeak *Parodia sobre las multinacionales* izeneko bere helduentzako ikuskizuna aurkeztuko du.

Ostegunean, berriz, Tafallako bertako elkartasuna izanen dute eztabaidagai herriko hainbat taldek. Eta ostiralean, Txileko Guerrero anaiak izanen dira protagonistak. Euren sorterriko kantak gogoratu eta Hego Amerikako musikari eskainiko diote kontzertua.

Larunbatean, Iruñera abiatuko dira Tafallako % 0,7 Batzordeko kideak. Izan ere, Sarasate pasealekuan aste osoan zehar Iruñeko batzordeko partaideek burutu duten kanpaldiarekin bat eginen dute Tafallakoek egun honetan.

Igandean, azkenik, Tafallako Nafarroa plazan, hirugarren munduko eskulanei eta produktuei eskainitako erakusketa izanen da. Goizeko hamaiketan hasiko da baina egun osoan zehar izanen dute Tafallako biztanleek bertara hurbiltzeko aukera.

Hirugarren munduko kulturaren erakusgarri izanen den eskulan erakusketa honexek emanen dio amaiera datorren astean zehar elkartasuna bultzatu asmoz Tafallan eginen duten hirugarren munduaren aldeko aste honi. Tafallako % 0,7 batzordeak antolatuta. X



# Natura oparoa, babes eskasa

Nafarroako naturguneei buruzko liburua kaleratu du Nafarroako Gobernuak Felix Armendarizek

**F**elix Armendariz Ingurugiro Saileko Naturaren Kontserbazio Zerbitzuko zuzendariak idatzi duen 'Espacios naturales protegidos de Navarra' argitara eman berri du Nafarroako Gobernuak. Bertan azaltzen denez, gure herrialdearen % 1,21 baino ez dute osatzen babesa jasotzen duten naturguneok.

Edurne Elizondo / Iruñea


NAFARROAKO GOBERNUAK kaleratu duen liburua jasotzen duenez, Nafarroan hiru erreserba integral eta 38 natural daude. Horietaz gain, 26 naturgune, 31 monumentu natural —zuhaitz bereziak, alegia— eta parke natural bat ere baditu herrialde honek. Guztiek batera 12.590 hektareako eremua osatzen dute, Nafarroako lurraldearen % 1,21 hain zuzen.

Felix Armendarizek hitz gutxitan azaldu du liburu honen zergatia: «Gure helburuen artean nagusi bihurtu da ingurugiroaren kontserbazio, babes eta hobekuntza». Ildo berean, gure ingurugiroaren ezagutza zabaldu eta berau babesteko egun indarrean diren legedi eta arautegiak ezagutarazi nahi izan ditu Naturaren Kontserbazio Zerbitzuko zuzendariak. Nafarroako aniztasunaren adierazgarri den aipatu sare naturala badago ere, txikia dela esan du Armendarizek, «babestuta dauden eremuez gain, besteak beste, Pirinioak, Bardeak, Iratiko oihana, Urbasa edo Aralar ere hor baitira».

## Erreserba integralak eta naturalak

• Nafarroan, denetara, 41 erreserba dago gaur egun, horietako hiru integralak eta gainontzekoak naturalak dira. Ukerdi, Lizardoia eta Aztaparretakoa dira Nafarroako erreserba integralak. Otsagabian lehenengo eta Izaban beste biak. Erreserba integralak dira interes ekologiko handiena duten naturguneak, bertan izaten baitira balore naturalik garrantzitsuenak. Erreserba horien helburua, hortaz, duten eduki ekologikoen babes osoa bermatzea da. Erabilera guztiak mugatu egiten dira eta xede zientifiko eta hezitzailea duten ekintza baimenduak baino ezin dira bertan abian jarri. Hitz gutxitan erranda, kanpoko eraginik jasotzen ez duten benetako naturaren laboratoriorak dira erreserba integralak.

Ukerdiko erreserba integralean pinu beltzak osatutako basoak dira nagusi, Aztaparreta eta Lizardoikoan, berriz, urte askoko zuhaitzek osatutako baso helduak; haritzak eta pagoak batez ere. Berezko fauna eta flora bizi



Hiru erreserba integral eta 38 natural daude Nafarroan.

ARTXIBOKOA

Nafarroako naturgune  
babestuek gure  
herrialdearen % 1,21a  
betetzen dute

da aipatu erreserbetan, baita egun desagertzeko zorian dagoen espezie anitz ere.

Erreserba naturalak, berriz, babes berezia merezi duten interes ekologiko handiko naturguneak dira, eta helburua ekosistema jakinen, espezie edo formazio geologikoen babesa eta hobekuntza da. Nafarroan 38 erreserba natural daude, eta gure herrialdeak duen ekosistema anitzen adierazgarri dira guztiak. Balio ekologiko handiko guneak daude bertan bilduta, baita Nafarroan sailkatuta dauden fauna eta florako espezie ezberdinak ere. Pirinioetako goimendiak eta subalpinoak Mendilaz eta Larrako erreserba naturalen agertzen dira. Haritz, pago, lizar, zumel eta beste hainbat zuhaitz motak osatutako basoen adierazgarri dira San Juan Xar, Irubelakaskoa, Putxerri, Tristuibartea, Urederrako iturbegia, Basaura, Lasiako labarrak, Peñalabeja, Olleta mendia eta Kontearen mendiko erreserba naturalak. Azkenik, hamar arroil eta harkaitz gune osatzen dute erreserba naturalen sarea. Ber-

tan bizi dira babesa behar duten hegazti mota aberatsenak. Erreserba naturalen erabilera eta kudeaketa integralena bezala Foru Dekretuaren bidez arautua badago ere, erreserba integralen arautegia naturalena baino murriztaileagoa dela erran daiteke.

Erreserba integral eta naturalak gain, erran bezala, badira Nafarroan legearen arabera babesa jasotzen duten beste hainbat gune ere, naturguneak, monumentu naturalak eta herrialdean dagoen parke natural bakarra —Bertizkoa—, alegia. Naturguneei dagokionez, 26 badira Nafarroan, eta paisaia edo ekologiararen aldetik leku jakin batek izan dezakeen balio edo interes zehatzaren arabera finkatzen dira.

Nafarroakoen artean, Odiako pagadia (Erroko bailaran), Ugarrongo arroila (Urraulgoiti eta Urraulbeitin), Leringo eta Santa Agedako pinudiak (Lerin eta Melidan) eta Granjafria edo Campo Allendeko ibarbasoa (Kaseda eta Milagron) aipa daitezke, besteak beste.

Bestalde, badira euren berezitasuna dela-eta monumentu naturaltzat jo dituzten zuhaitzak ere, Nafarroan 31 osotara. Urbasa mendizerran dagoen Otxaportilloko hagina, Uztarroko Surioko Pinua izenekoa, Iruñeko Diputazioko jauregian dagoen sekuoia, Bertizko zedroa, Lodosako zurzuria edo Erriberriko gazteluko marzuzondoa dira Nafarroako dituen monumentu natural horietako batzuk.

Izan ere, Nafarroan bertakoak diren zuhaitz mota anitz dago. Horien artean badira bai mendietan bai hiriguneetan babes eta zainketa berezia jasotzen duten zuhaiz edo zuhaitz multzoak. Duten garrantzi historikoa, interes zientifiko eta kulturala edo kalitatea dira kontuan hartzen diren ezaugarriak. Beraz, Nafarroako

araudiaren arabera, monumentu naturaltzat jotzen dira euren espeziearen barruan dituzten ezaugarri ezohizkoengatik babes berezia merezi duten zuhaitz edo zuhaitz multzoak, bai adina, itxura, historia, berezitasun zientifikoa edo interes ekologiko, kultural edo paisajistikoa dela-eta.

**Bertizkoa oraingoz parke natural bakarra** • Bertizko Jaureria da Nafarroan dagoen parke natural bakarra eta osotara 2.040 hektarea ditu. Lurraldea Bertizarango Udalarri dagokio eta iparraldetik Etxalarrekin egiten du muga. Ekialdean, berriz, Baztango lurrekin, hegoaldean Bidasoa ibaiarekin eta mendebaldean Bertizarango beste lurrekin eta Lau Herri izeneko mendirekin.

Jabegoari dagokionez, 1392koa da lehen erreferentzia. Orduan, Pedro Miguel Bertizena zen etxaldea. Bertiz familiako beste hainbat kideren eskutik igaro ondoren, Pedro Ziga Mayok erosi zuen 1898. urtean eta egun duen itxura eman zion. 1949ean bere testamentuan idatzi zuenez, Nafarroari utzi zion Bertizko etxaldea, baldintza bakar batekin: bere itxura alda ez zezatela. Ildo horretan ulertu behar da parke naturaltzak jo izana.

Diputazio Foralak 1984. urtean eskuratu zuen Bertizko Jaureriko etxaldea. Urte bereko martxoaren 25ean hartutako akordioari jarraiki, parke natural izendatu zuen. Parkeko Zuzendaritza Batzordea osatu zuten eta honen aholkuari jarraikiz, zonetan zatikatu zuten Bertizko Jaureria: Interes ekologiko berezia duen zona, trantsizioko zona, harrera eta informazio zona, lorategia eta interpretazio zona (Jaureria eta beste eraikinak). Inguru horien artean, lorategia azpimarratu behar da. Honen historia 1847. urte inguruan hasten da eta bertan bizi dira Nafarroakoak berezkoak diren landareak exotikoagoak diren beste hainbatekin batera. Interes ekologiko berezia duen zonan, halaber, masa forestal guztia kaltetzen da. Pagoak, haritzak eta haitzak badira, besteak beste, Baso guztiek, gainera, naturaltasun maila altua dute.

Bertizkoa oraingoz parke natural bakarra bada ere, Aralar, Pirinioak, Urbasa-Andia edo Bardeetan ere, laster, bertako baliabide naturalak arautzeko planak jarriko dira martxan. Horietako leku batzuk parke natural izendatzea, gainera, ez dute baztertzen.

Nafarroako Gobernuak Ingurugiro Saileko arduradunek aipatu dutenez, «parke diren baliabide naturalak arautzeko planak izatea da logikoena, baina, adibidez, Pirinioetako biztanleek parkerik ez badute nahi ez diegu inposatuko». X



Nafarroako  
naturgune babestuak


# Hiru integral eta 38 natural

Legez araututa dauden erreserba natural hauetan bizi da Nafarroako flora eta faunarik aberatsena

E. Elizondo / Iruñea

- 1 Lizardoiako erreserba integrala:** Otsagabiako Udaleri dagokio. Iratiko oihanean interes ekologikorik handien duen zonaldea da. Lepahori, orein eta orkatzak bizi dira bertan.
- 2 Ukerdiko erreserba integrala:** Izabako Udalaren barruan, Larrako eremuan eta Nafarroako pisu subalpinoaren oinarritzko gunea. Pinu beltza da nagusi eta basoilarra eta sarrioak badira. Hartzak noibehinka.
- 3 Aztaparretako erreserba integrala:** Izabako Udaleri dagokio. Izei eta pagoez osatutako basoa da. Lepahori, sarrio eta orkatzak daude.
- 4 Labiagako erreserba naturala:** Berako Udaleri dagokio. Ibantelli mendiko iparreko magalean dago. Arbel tokia du. Pteridofita fosil asko aurki daitezke.
- 5 Itxusiko erreserba naturala:** Baztango bailarako Udalaren barruan dago. Harizti eta pagadiak daude. Faunan, saiarrera aipagarri.
- 6 San Juan Xarreko erreserba naturala:** Igantzi-ko Udaleri dagokio. Latza ibaiko ezker ibarran. Pagarrak dira garrantzitsuenak.
- 7 Irubetakaskoako erreserba naturala:** Baztango Udaleri dagokio. Arizajun eta Urrizate erreken gaineko haltzadia azpimarragarri.
- 8 Lanzko Basajaun Etxea kobazuloko erreserba naturala:** Lanzko Udaleri dagokio. Erromatarren garaian, burdina ateratzen zuten bertatik eta aztarnak nabari daitezke.
- 9 Mendilazeko erreserba naturala:** Orbaiztako Udaleri dagokio. Orkatzak, oreinak, lepahoriak eta muxar grisak daude.
- 10 Putxerriko erreserba naturala:** Ergoienako Udaleri dagokio. Putxerri mendian. Pagadiak dira nagusi eta hagin gazteak ere ugari.
- 11 Tristuibarteako erreserba naturala:** Aezkoa-Hiriberri-ko Udaleri dagokio. Hariztiak dira nagusi.
- 12 Iñarbeko arrolako erreserba naturala:** Orotz-Betelu eta Artzibarreko Udaleri dagokio. Piriniotako hariztiak nagusi. Saiarreak, saizuriak eta belatzak.
- 13 Txintxurreneako Potzako erreserba naturala:** Artzibar eta Longidako Udaleri dagokio. Saizuriak, belatzak,

**G**ure herrialdean dauden naturgune babestuen artean, badira hiru erreserba integral eta 38 natural. Bertako baliabideak, erabilerak eta kudeaketa bera legeak arautzen ditu eta bertan bizi da ere, Nafarroako fauna eta florarik aberatsena.



arranoak, saiarreak, basakatuak, katajinetak, ipurtatsak eta azeriak badira.

- 14 Gazteluko erreserba naturala:** Artzibar eta Longidako Bailarako Udaleri dagokio. Txepetak, txinboak, musker berdeak eta aspid motako sugedorriak badira.
- 15 Larrako erreserba naturala:** Izabako Udaleri dagokio. Hartzak, sarrioak, marmota, basoilarra, arranoa eta abar badira.
- 16 Lasiako labarreko erreserba naturala:** Zuñiga-ko Udaleri dagokio. Ega ibaiak zeharkatzen du. Mediterraneo basoen ekosisteman da nagusi.
- 17 Urederrako iturbegiko erreserba naturala:** Amekoabarrengo Udaleri dagokio. Zuhaitz mota ugari.
- 18 Basaurako erreserba naturala:** Amekoabarrengo Udaleri dagokio. Zumel basoa da nagusi. Faunari dagokionez, Mediterraneo basoen berezko espezieak ageri dira: arranoak, ontzak, miruak, baita basakatuak, katajinetak eta azeriak ere.

- 19 Arbaiungo arrolako erreserba naturala:** Romanzadoko bailara eta Irunberri-ko Udaleri dagokio. Mediterraneo paisaia nagusi: ezkiak, lizarrak, otsolizarrak eta zumarrak. Saiak badira.
- 20 Benasako arrolako erreserba naturala:** Nabaskoze-ko Udaleri dagokio. Piriniotako adierazgarri den izeia eta Mediterraneo otsolizarra elkarrekin aurki daitezke. Saizuriak, saiak eta arranoak.
- 21 Burgiko arrolako erreserba naturala:** Burgiko Udaleri dagokio. Saiarreak, basakatuak, basurdeak eta orkatzak daude.
- 22 Peñalabejako erreserba naturala:** Kabredoko Udaleri dagokio. Hariztiak dira nagusi. Urubiak, ontzak eta gabiraiak badaude, baita basurdeak, azkonarrak eta katajinetak ere.
- 23 Salobreko urtegiko erreserba naturala:** Bianako Udaleri dagokio. Zonaldean oso murrizta den ekosistema hezea da. Ur hegaztiak.

- 24 Olleta mendiko erreserba naturala:** Leozko Udaleri dagokio. Ametzak dira nagusi. Hariztiak eta astigarrak ere badira. Katajinetak, basurdeak eta basakatuak.
- 25 Condearen mendiko erreserba naturala:** Santsoaingo Udaleri dagokio. Erreserba pribatua da. Katajinetak, azkonarrak eta azeriak ere badira.
- 26 Juncaleko aintzirako erreserba naturala:** Tafallako Udaleri dagokio. Hegaztien artean, uroilanda eta kopetazuria aurki daitezke.
- 27 Harrietako labarrak eta San Adriango erreserba naturala:** Irunberri-ko Udaleri dagokio. Zumelak dira nagusi zehaitzei dagokionez. Saiak, saizuriak, ontzak eta arranoak badira.
- 28 Irunberriko arrolako erreserba naturala:** Irunberri-ko Udaleri dagokio. Zumel zuhaixkak nagusi. Saiarreak, saizuriak eta ontzak.
- 29 Kaparretako erreserba naturala:** Galipentzuko Udaleri dagokio. Landaretza

mediterraneanarra da eta zumelak dira nagusi. Basakatuak eta katajinetak badira.

- 30 Pitillasko aintzirako erreserba naturala:** Pitillas eta Santakarako Udaleri dagokio. Ur hegaztiak: ahate, koartza eta uroilanda.
- 31 Sotos de Arquillo eta Barbaracesko erreserba naturala:** Falcesko Udaleri dagokio. Argako bi ertzetan. Makal, sahats, zumar eta lizarrak nagusi. Miruak, ahateak eta kopetazuriak.
- 32 Sotos de la Lobera eta Sotilloseko erreserba naturala:** Caparrosoko Udaleri dagokio. Makal, zurzuri, sahats eta lizarrak badira. Koartzak ere bai.
- 33 Sotos de Gil eta Ramal Hondoko erreserba naturala:** Peralta eta Funeseko Udaleri dagokio. Makal, zurzuri eta sahatsak aurki daitezke. Ahateak, koartzak eta txilipurtak badira.
- 34 Eguaraseko erreserba naturala:** Valtierra-ko Udaleri dagokio. Fauna anitza. Arranoak, saizuriak eta sorbeltzak badaude baita basakatuak eta basurdeak ere.
- 35 Soto del Ramaletako erreserba naturala:** Tuterako Udaleri dagokio. Untxi eta mamifero txikiak egokia da. Harrapariak ere badira.
- 36 Soto de la Remontako erreserba naturala:** Tuterako Udaleri dagokio. Fauna aberatsa du: koartzak, miruak eta zapelaitzak.
- 37 Ur Gaziko urmahelako erreserba naturala:** Tuterako Udaleri dagokio. Udaro lehortzen da. Kopetazuriak eta uroilanda bizi dira.
- 38 Pulguerreko urmahelako erreserba naturala:** Tuterako eta Cascante-ko Udaleri dagokio. Bertako fauna eta flora ere aberatsak dira.
- 39 Rincon del Buko erreserba naturala:** Bardeei dagokio. Hainbat lekutan zituak badira. Haitzetan arranoak, ontzak eta saizuriak.
- 40 Caidas de la Negrako erreserba naturala:** Bardeei dagokio. Pinuak dira nagusi. Mediterraneo basoko animaliak aurki daitezke: basakatuak eta basurdeak.
- 41 Soto Quebrado, El ramillo eta La Mejana-ko erreserba naturala:** Buñuel eta Fustiñanako Udaleri dagokio. Ebro ibaiko bi ertzetan kokatzen dira erreserba osatzen duten sotoak. X



## Xanti Begiristain

## «Zoriondu nahi diot Edurneri bere zorionak direlako»

■ Ez dago zalantzarik, entzuten dugunak egundoko eragina izaten du guregan, eta askoz ere eragin handiagoa oraindik, entzuten dugun hori askotan suertatzen baldin bada. Horixe gertatzen zaigu gaur egun sarritan euskal komunikabideei esker.

Aipaturiko komunikabide horiek egunean zehar ordu askotan aritzen dira hizketan; batzuk eten-gabe hogeita lau orduetan zorionez. Baina horrek baditu alderdi onak eta ez hain onak. Sarritan gertatzen da, horren programazio luzetan, mintzatzen dela terraje guztietako jendea. Batzuek oso euskara maila jasoa dute, beste batzuek onargarria, beste batzuek, aldiz, kaskarra, eta bukatzeko, beste batzuek, ordea, arrunt txarra. Honako hau, nire ustez, orokorrean, komunikabide guztietan edo gehienetan behintzat gertatzen da. Eta horretantxe

ikusten dut arriskua, prezeski; mila aldiz akats bera makina bat pertsonari entzun ondoren, eta gainera irratitelebistetan, edonork pentsa lezake erru hori ongi dagoela. Ez dezagun ahazt jende gehienak erreazionatzen duela bere barnean honako hau esanez: «kontxo, ba, irratitebistetan horrela esan baldin badute, ongi egongo da, ez da hala?»

—Bai, esan!

—Egunon!

—Baita zuri ere!

—Begira, nik zoriondu nahi «nion Edurneri» gaur bere «zorionak» direlako.

Zer deritzozue elkarrizketa «eder» honi? Euskara dezente samar ezagutzen duen edozein pertsonak, gaizki iritziko diolakoan nago. Hemen ez dut egoki ikusten arrazoiak azaltzen hasia, horregatik horretantxe utziko dut azalpenen kontua.

Gorago esan bezala, zuetariko inork maiz ikusentzuten baldin baditu euskal irratitebistak, aise frogatu ahalko du horrelakorik maiztasun handi samarrez gertatzen dela.

Eta horren aurrean zer egin daitekeen? Ba, nire uste apalean, gauza bat baino gehiago, esate baterako: 1. Deus pentsatu gabe dena irentsi eta kitto! Gaizki deritzot. 2. Hausnartu, gogoeta egin eta ikusi zer dagoen gaizki. Hobe iruditzen zait. Eta 3. Komunikabideetako profesional berberak behar beste zuzenketa egitea noizean behin, behinik behin. Azken honi askoz ere hobe deritzot oraindik.

Eta egia izenean esan beharra daukat behin

baino gehiagotan entzun diedala, esaterako, Jaime Otamendi eta Arantxa Iturberi tankera honetako zuzenketa egiten jendeari momentu berean, adibidez:

—Ez, ez. «Urteak egin ditu», «urtebetetzea du», edota «gaur bere kumpleñoa da» esan behar duzue euskara jatorrean!

Hori guztia arras egoki eta onuragarria iruditzen zait; nik uste dut profesionalak zuzendu behar dutela «orkestra» eta era berean, ildoa markatu. Azken finean, zerbaitengatik dira profesionalak, eta kobratu ere, modu horretan kobratzen dute.

Gorago jarritako adibidea, askotan esaten dute haur eta gaztetxoek! baina zenbait pertsona helduk ere bai. Askotan ez hitzak soilik baizik eta esaldi osoak, esate baterako: «Noski baietz», «noski ezetz», «etxe batetan», «bosnotarrak», «gobierno



hirukoitza», «polizial neurriak», «politiko egoera», «ekonomiko sistema», «dagokionean» (dagokionez-en orde), eta abar bakar batzuk baino ez aipatzearren.

Behin batean gogoratzen dut Euskadi Irratiko kazetari batek elkarrizketatu zuela Ipar Euskal Herriko gizonezko bat. Azken honek behin eta berriz esaten zuen «harrobi» hitza eta profesionalak, ordea, «kantera» terminoa makina bat aldiz; kazetariak «harrobia» ez zela euskara jatorra aditzera eman nahi ziola zirudien, eta «kantera», aldiz, askoz egokiagoa zela. Holakorik!

Beste batzuetan gertatzen da gonbidatua ez dela oso trebatua euskaraz, baina berak badaki hori eta horregatik noizbehinka honako hauxe galdeztzen dio esatariari: «aizu, nola esaten da euskaraz 'Gobierno tripartito'», «Berdin da. Esan dezagun 'Gobierno tripartito' eta kitto!» izaten da erantzuna batzuetan.

Bai, badakit jende arruntari ezin zaiola miraririk eskatu, baina aldi berean pentsatzen dut kazetari eta esatari profesionalak indar handiagok heldu beharko lioketela zezenari adarretatik. ■

## Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

## George Borrow eta Oteiza medikua

■ Londoneko elkarte biblikoaren kidea zen George Borrow 1835. urteko azaroaren hamaika batean —ez dakigu ordea hamaiketan izanen zenetz, Bilboko metroaren inaugurazioa bezalaxe— Lisboako kaiara arribatu zen misiolari gisa aritzeko. Naski bere lan prozelitista eliz protestantearen aldekoa zela, izan ere, orduko europar inkomunikatu gehientsuenak paganoak baitziren, gentilak apika. Borrow, edo don *Jorgito el inglés* izengoitiaz ezagunagoa zena, Norfolk lurraldeko East Dereham hirian —Norwich ondoan hain zuzen ere— sortu zen 1803. urteko uztaillaren bostean. Aita egoal eskaxeko kapitain xumea zen. Alabaina, berehalaxe ekinen zion ikasteari, eta Dum Eideann —Edinburgh erderaz—, Norwich bera, eta Eireko Cluain Meala hirietan aritu zen ikasten. Legegizon baten bulegoan hasi zen lanean, bainan asper eginda nonbait, Breña Handiko bideak ibiltzen hasi zen, buhamekin hartueman ugariak izan zituelarik, azkenik, 1832. urtean aipatu elkarte biblikoan sartu arte. Lehendabiziko ateraldia Errusia aldera egokitu zitzaion, baina bere bidalarik interesgarrienak peninsulara egin zituenak izan ziren, 1835. eta 1839. urteen bitartean espreski. 1840. ean, sorterrira betiko itzuli zenean, ezkondu zen, beste berririk ez daukagula, 1881. ean zendu zen arte. Bere biografiaz zertxobait jakin nahi izanez gero, ikus bedi William I. Knapp euskalari estatubatuarren *Life, writing and correspondence of George Borrow* New Yorken 1899. urtean ageri lana.

Españako bere egonaldien pasadizoekin liburu bat idatzi zuen, *The bible in Spain or the journeys, adventures, and imprisonments of an englishman in an attempt to circulate the scriptures in the peninsula* izenburukoa, Londonen argitaratu zena 1842. urtean.

Liburu honetan, Euskalerriri egotzia kapitulu bat bada, XXXVII. alegia: «Euscarra. Basque not irish. Sanscrit and tartar dialects. A vowel language. Popular poetry. The basques. Their persons. Basque women». Bertan hizkuntza eta ohiturei buruzko zenbait aburu plazaratu zituen. Esan beharra dago, Borrowek aspaldidanik euskararekiko interesa erakutsi zuela, nahiz Euskalerrian bi itzulpenen berri eman zuen, bata kalo hizkuntzara, eta bestea, nola ez bada, euskarara: «I committed to the press two works, wich for some time past been in the course of preparation. These were the Gospel of St. Luke in the Spanish Gypsy and the Euscarra languages». Euskal itzulpenaz honela dio: «The translation I procured originally from a basque physician of the name of Oteiza. Previous to being sent to press, the version had lain nearly two years in my possession, during wich time, and particularly during my travels, i lost no opportunity of submitting it to the inspection of those who were considered competent scholars in the Euscarra. It did not entirely please me; but it was in vain to sek for a better translation». Urkixok esan zuenez, edizio honek ez zuen oihartzun handirik izan, oso bitxi gerta baitzen, bestalde, esan den bezala, agintariek desagertarazi izan zituzten ale gehienak bere liburudenda itxi zutenean.

Oteiza horretaz, bestalde, ezer gutxi dakigu. Juan Iruretagoienaren ikerketei esker, bai ezaguna dela 1803. ean Albizturren jaio Juan Jose Bizente Oteiza Izuzkiza Mugerza Albisu izan zitekeela guri interesatzen zaigun gizona. Bere amaren aldetik giputzak zituen erroak, Errezil eta Zumarragoak, baina aitaren aldetik, guziz nafarrak, Arriba, Lakuntza eta Azkaratekoak hain zuzen ere. Aita eta Aitaxiaren lanbideei jarraikiz, bera ere medikua izan zen. Hortarako, 1824. urtean Madrileran joan zen ikasle, 1846. ean doktore titulua eskuratu zuelarik. Borrowen aginduz egin zuen itzulpena hauxe dugu: *Evangelio San Lucasen guissan: el evangelio según san Lucas traducido al bascuence*, Madrilén, Imprenta de la Compañía Tipográfica delakoan, 1838. urtean. Oso ale gutxi dira egun. Madrilero liburutegi nazionalan lau ale besterik ez. Gasteizko Sancho el Sabion bakarria, Borrowen beraren glosekina: «erregue: king; zan: was; eta: and; aurrean: before; ce: what; jauna: lord; ainguerua: angel». ■



Taldeko euskal ligako hirugarren jardunaldiko partida, 1995eko azaroaren 19an jokatua.

**Alex Moreto** (Getxo) — **Florentino Moro** (Iruñeko Anaitasuna) 2.005 ELOkoa.

1. d4, d6; 2. e4, Zf6; 3. Zc3, g6; 4. f3, Ag7; 5. Ae3, c6; 6. Dd2, h5; 7. a4, a5; 8. Ac4, Za6; 9. gZ-e2, Zb4; 10. 0-0-0, Dc7; 11. h3, h4; 12. Ag5, e5; 13. f4, d4; 14. Zd4, Zh5.

Zurien garapena orekatuagoa zirudien. Hala ere, beltzek nolabait partida eman dute.

15. Ah4, Zf4.

Peoi bat ematea gutxi balitz bezala, zaldia ere opari egin dute.

16. Df4, f6; 17. Df2, De7; 18. dG-e1, Gh5; 19. g4, Gc5; 20. Zd5.

**Ikus koadroa.** Konbinazio ederra zuriena neurketari azken ukitua emateko. Garbi dago zaldia ezin dela jan, 'd5' jokaldiaz dama harrapatuta izanen litzatekeelako.

20...., Gc4; 21. Ze7, Zd3 xa; 22. Eb1, Zf2; 23. Zc8.

Ederki jokaldi hau! 'Zb6' eginda bi gazteluak mehatxateko prest.

23...., Gc8; 24. Af2.


Taula garbitu da, zurien onerako.

24...., Ga4; 25. c3, b5; 26. Ze6, Ah8; 27. Ag3, Ea7;

28. Zd4, b4.

Etsipenaren ondoriozko jokaldia. Gaztelua utzi dute. 29. b3, Ga3; 30. Eb2, a4; 31. b4, f5; 32. e-f5 xa, Ed7; 33. Ea3, Ad4; 34. a4.

Beltzek etsi egin zuten. Alferrik da saiatzea, piezak horren erraz utziz gero.







Lesakan egin zuten Xalto sariko lehen kanporaketa.

EDURNE KOCH

## Goizuetan azken Xaltoa

Lesaka eta Arbizuko saioen ondoren, bihar izanen da bertso sariketako finala

Jon Abril / Bera

NAFARROAKO bertsolari gazteentzako antolatutako sariketa honetan, hemezortzi bertsolari hartu dute parte. Joan den ortziralean, Arbizun izaniko finalaurrekoan, hamabi bertsolari taularatu ziren.

Sei, Lesakan egindako kanporaketa saiotik etorriak ziren: Erika Lagoma, Julen Zelaieta, Ekintza Landa, Alaitz Rekondo, Saioa Mitxelena eta Noelia Linares. Hauetaz gain, zuzenean finalaurrean egoteko txartela zuten bertze seiak egon ziren: Xabier Silveira, Xabier Legarreta, Estitxu Fernandez eta Iñigo Olaetxea lazko finalean egon zirelako eta Nerea Bruño eta Oskar Estanga, iaz finalean egon ziren baina arden parte hartu ez duten Estitxu Arozena eta Amaia Teiletxea ordezkatzan.

Saioak gora-beherak izan zituen arren, Lesakako saioan erakutsitako maila onari eutsi zitzaion.

Azkenean, bihar finalean egongo diren zortziak erabaki ziren. Xabier Silveira izan zen lehena 107 puntuz; bigarrena Xabier Legarreta gelditu zen puntu erdira; 102,5 puntu Estitxu Fernandezek jaso zituen, Erika Lagomak baino puntu erdi gehiago. Bosgarren eta seigarren postuan, puntuetan berdinduta, Nerea Bruño eta Iñigo Olaetxea gelditu ziren, bakoitzak 100,5 puntu zituela.

Julen Zelaieta eta Ekintza Landak osatzen dute zortzikotea, Arbizun 99 eta 98,5 puntu jaso baitzituzten hurrenez hurren.

**Azken bi asteotan egin diren kanporaketa eta finalaurreko saioak egin ondoren, bihar, arratsaldeko seietatik aurrera Goizuetan izango da Xalto sariko finala. Nafarroako zortzi bertsolari gazteen lanaz gozatzeko aukera izanen dute bertara hurbildutakoek.**

Xabier Silveira da gehienentzat faboritoa, orain arte egoniko lana kontuan hartuta, baina inork ez du argi honela gertatuko denik. Berak ere, bere burua «zuria» duela aipatu eta «irabazteko aukerak hor daudela» gaineratu du.

Joxema Leitzua Nafarroako Bertsolarien Lagunak elkarteak idazkari eta epaimahaikidearentzat, halaber, Xabier Silveira da txapela irabazteko faboritoa. Ekintza Landa gazte iruindararentzat aldiz, «hoberenak irabaziko du».

Nahiz eta zortzigarren gelditu, Ekintza Landa pozik dago bertako paperarekin. «Azken

*Xabier Silveira: «Hogei gazte bat-batean aritzea hagitz positiboa da, are gehiago Nafarroan»*

*Ekintza Landa: «Azken bi urteotako lanak fruituak eman izanak poztu egiten nau. Goizuetako saioan nire esku dagoena egingo dut»*

bi urtetako lanak fruituak eman izanak pozten nau. Goizuetan nire esku dagoena egingo dut» gaineratu du.

Argi dago aurtengo Xalto Saria nafar bertsolariaren barruan pauso garrantzitsua eman duela. Silveira lesakarrarentzat «hagitz positiboa izan da hogei gazte bapatean aritza, eta are gehiago Nafarroan».

Joxema Leitzarentzat, ordea, «bertsolari gazteak heldu diren arren, bertsozale gazteak lortzeko premia dago», eta bertsozale gazteak sortzearekin ikusten du etorkizuna: «Hori lortzen den heinean etorkizun egokia ikusten dut».

## Aitzinera gure apustuan

iritzia

Jon Abril

Epaimahaiko kidea

ORAIN bi urte Nafarroako bertsolari gazteok ekin genion apustua izan zen Xalto saria. Lehenbiziko bi urteetan, egia erran, emaitzak nahiko urriak izan dira eta ez du sariak uste genuen oihartzunik jaso. Aurtan, aldiz, aldaketaren aldeko apustu berri bati ekin diogu: kanporaketa eta finalaurrekoak eranstea eta Goizuetatik kanpo burutzea saio hauek.

Argi dago, bertsolarien maila izugarri hobetu dela urtebetean, eta bertze hainbertze hobetzea nahiko nuke urte baten buruan egingo dugun Laugarren edizioan. Baina arazo nagusi bat planteatzen zait niri: helburu bakarra bertsolari gazteen

arteko harremana sendotzea eta hauentzako saioak antolatzea ote da? Harantzago joan beharko genuke. Publikoa landu beharra dago, bertsolariarako derrigorrezko tresna bertsolariak baldin badira, ezin baititugu entzuleak ahaztu. Gazteak erakarri behar ditugu eta agian horretarako bide berriak esperimentatu beharko genituzke.

Lan honekin batera, badaude bertze bi egitekoak: Bat, Iparraldean bertsolariak zuzpertzatu eta bigarrena, oraingo bideari jarraitzea eman eta bertsolari gazteak bultzatu. Poliki-poliki, urratsez urrats, aitzinera baikoaz gure apustuan. X

## Agur eta ohore zuri, Etxeparia

■ Agorrilaren hondar egunean zure bila abian nintzelarik ez nekien xuxen non zinen, halere ez nuen uste zaila izanen zela zure atxemaitea, hain etxe pare gabea izanik guretako. Eta ez, ez zen izan baina... Sarrasketako herrixka ederrean zira kokaturik eta bixtan denez, zure herriak ez omen du bide seinalerik merezi ere.

Ezker-eskuin galdeginenez zuregana heldu nintzen eta orduan, zu ikusterakoan, goartu nola giren eroriak peko errekarra. Hori ahalke! Zer zira bilakatu! Lurrera ari zira! Zure ondoan, berriz, Etxartia duzu dotore eta eder, baina kaskoin udatiar-leku bilakaturik...zer afruntu!

Zuri buruz joanki urruneko azantzak heldu zitzaizkidan berrietara, bereziki zure haur baten burrunbak...anitz seme-alaba altxatuak izanen dituzu naski, baina batenak bereziki, hortzehen urte pasa sortu zen Bernat deituarenak. Zure baitan hazi eta hezi omen zen, zure horma sendoen artean ikasi lemixiko eleak, zuk babestu zinduen aro hartan harik eta, zure izena emanik, plaza-ratu zinduen artio.

Haren berri soberarik ez dugu, baina badakigu zugandik urrun ez zelarik lanean egon, Garazin beti ere. Eta egun Garazi, oino ere, arras euskaldun bada...nolako zen izanen tenore hartan? Alta Bernatek pipia somatu zuen lanean ari, eta harrigarri bazaigu ere, oi hu samina aireratu: Euskara! Jalgi hadi plazara!

Etorkizunaren igerle argia zure Bernat, damurik ez baitzuen oihartzunik aski izan.

Anitz zor daukagu guk Bernati, aspaldidanik eman baitzaukun abisua (oino ere ongi aditu gabe dagoena) eta anitz zor zazuun harek zuri, izena haste...

Zuregana hurbildurik, harri kantoi batetik afixa bat dilindan ikusi nuen eta mezu adierazgarria irakurri ere arrotz eletan: *A vendre* (salgai).

Gugenezakit zer, Kurtsaal, planetario eta abarren herrialdean ez ote sos eskas zemeit zu zutik atxikitze? Zu, bederen, arrotz eskuetan ez uzteko? Oi, ai, nor bagina!

Zilegi bekik ausardia baina...elkartuko bagina jende zemeit zure erosteko? Ba, amestetan ari niz bai...baina hala suertatuko balitz, Etxeparia, xakizu nerekin konta dezakezula.

Hitz dautzut. ■



\* ◆ Orreaga Ibarra ◆ Hizkuntzalaria

# «Hizkuntz kontzientzia handiagoa dago Basaburuan Ultzaman baino»

**U**ltzamako euskararen azterketa izeneko liburua aurkeztu berri du Orreaga Ibarra NUPEko irakaslea, iaz aurkeztu zuen tesiaren ondorioa, hain zuzen ere. Ezaugarri linguistikoak ezezik, inguruko euskalkiekiko harremana eta hiztunen kontzientzia linguistikoa aztertu du lan mardul honetan.

Alberto Barandiaran / Iruñea



Orreaga Ibarra, liburua aurkezteko egunean.  
JOXELACALLE

MEZKIRIZKOA izanik hango —Erroibarreko— euskararen azterketa egitea bururatu zitzaion irakasleari, baina orduantxe jakin izan zuen lanak bazuela ordurako ikerlea. Beraz, euskarak galtzear duen inguru interesgarrietako bati begira jarri zen: Bonaparte Printzeak deitu zuen iparraldeko goi nafarrera biltzen duenera, hain zuzen ere. Hizkuntz-muga asko hortik igarotzen zirela eta Anue eta Atetzen hizkuntza galtzear zegoela ikusirik, lana ezin interesgarriagoa iruditu zitzaion. Eta halaxe suertatu.

■ **Beti esan ohi da Ultzaman duela, prezeski, euskararen galera abiada azkarrena.**  
Erroibarren, akaso, aurrera-tuagoa dago, baina bai... Ikastola eta ikastetxeetan daudenak lan handia egiten ari dira, baina galera hor dago. Edozeinek froga dezake hori, hitz egiteko ohitura asko galdu delako.  
■ **Horrek zer eragin izan dezake zurea bezalako lan batekin abiatzerakoan?**

«Bonaparte Printzeak egin zuen banaketan iparra eta hegoa bereizten zituen goi nafarreraren barruan, baina ekialdea eta mendebaldekoa beharko luke»

Jakina, mugak jartzen dizkio ikerketari, hiztunak soilik zaharrak direlako. Ez dira kontuan hartzen haurrek zer motatako hizkuntza erabiltzen duten, hor batua eragina oso indartsua izaten delako, eta hiztun zaharrak gehienetan zaharrak direnez, horrek zail egiten du askotan elkarriketa egitea. Aditz sistematik eta egiteko erotu behar dituzu... Gainera galtzen ari deanean, gutxiago ebakitzen da, eta ondorio soziologikoak ere izaten dira: oso balorazio urria dute hizkuntzerekiko, haiena ez den hizkera ez dutela ulertzen, euskara zertarako eta antzeko galderak egiten dituzte... Egoera hori batez ere Ultzaman, Atetzen eta Anuen dute, Basaburuan eta Imotzen

aldatzen delako. Hizkuntzarekiko kontzientzia handiagoa dute eta hizkuntza bera biziagoa da, gehiago gorde da. Soziologikoki ere desberdinak direla uste dut, politikoki ere botoak alderdi ezberdinetara joaten direlako.

■ **Jendea kontzientea da galerraz?**  
Bai, erabat, baina batzuetan baikorragoak dira gu baino. Beti aipatzen dute eskoletan irakasten dela eta, baina nire ustez estatistikak ez datoz bat entzuten denarekin. Erroldari begiratzeko badiozu ikusten da gora doala, baina herrietan ikusten da nabarmen galtzen ari dela.  
■ **Zergatik da galera nabarmenagoa Ultzaman Basaburuan baino?**  
Galera ekialdetik dator beti: erronkaria galdu da, zaraitzuera galtzear dago, aezkeraz mintzatzen direnak oso gutxi dira... beraz hortik dator galera, eta Ultzamak muga egiten du Eugiko barietate horrekin, Esteribar eta Erroibarrekin... Imotz eta Basa-

burua babestuagoxe daude.  
■ **«Kontzientzia linguistikoa sakontzen» saiatu zarela diozu liburuaren laburpenean. Zehazenezake gehiago?**  
Saiatu naiz ikertzen hizkuntza berari buruz zer pentsatzen duten, daukaten hizkuntzak zerbaitetarako balio duen pentsatzen duten, eta baita inguruko euskalkiekiko zer-nolako kontzientzia duten ere. Izan ere, batzuetan gehiago baloratzen dute ez dakit nongo euskara —«Tolosakoa» bereziki— nahiz eta inoiz ez aditu, eta nolabaiteko hierarkia ere badago euskalkien artean.  
■ **Ezberdinak dira egoerak Ultzaman edo Basaburuan?**  
Elkarren arteko ulermenari dagokionez, Ultzamakoek eragozpen gehiago daukate Basaburuko euskara ulertzeko, eta kontzientzia ere desberdina da. Basaburukoek balorapen handiagoa dute euskararekiko eta hizkuntzen hierarkia ere hor dago.  
■ **Bonaparte Printzeak egin zuen**

euskalkien banaketarekin ez zator bat liburuaren ondorioak azaltzean.  
Berak bost azpieuskalki ezberdin zituen iparraldeko goi-nafarreran, eta horietako bat zen Ultzamakoa. Barietate hau aztertu ondoren, ordea, nere ondorioa da ipar eta hegoa bereizten duen muga hori ez litzatekeela horrela izan behar, eki eta mendebalde bereiztu beharko litzateke, hizkuntz-muga gehienak inguru honetatik igarotzen direlako. Hori konpontzeko proposamen bat egiten dut, hau da, ekialdekoa eta mendebaldekoa bereiztea eta ez hegoaldekoa eta iparraldekoa. Ekialdean geldituko lirateke Ultzama, Anue, Atetz eta Imozko Muskitz herria. Mendebaldean, Basaburua eta Imotz izango lirateke. Nere ustez, Basaburuan mintzatzen den euskarak harreman handiagoa dauka Larraunekin eta Ultzamakoarekin baino. Eta Ultzamakoak, aldiz, gehiago du Erroibarkoarekin, zerbait baztanerarekin.

s o s l a i a

Nafarroako Unibertsitate Publiko irakaslea da Orreaga Ibarra, eta aurretik Paz de Ziganda ikastolan aritu zen. Mezkitzen (Erroibar) jaioa, lau urtetan zehar Ultzaman egitako hainbat elkarrizketaren ondorioa da orain aurkeztu duen 'Ultzamako euskararen azterketa' liburua, iaz Gastelzen irakurri zuen tesiaren emaitza bera.

Azterketan Ultzama, Atetz, Anue, Basaburua eta Imotz haranak biltzen ditu, hau da, Bonaparte Printzeak iparraldeko goi nafarrera izendatu zuena. Bere usteetan, ordea —hori da, hain zuzen, ikerketaren emaitzarik esanguratsuena—, ekialde eta mendebaldean banatu beharko litzateke euskalki hau, ikerketako ingurua bi zatitan banatzen duen marra iparraldekotik hegoaldera doalako. Liburuaren edizioarako Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza jaso du.

Bonaparte Printzeak egitako lanari izugarri deritzo, baina planteamendu berriak egiten ari direla azpimarratu du, bereziki Koldo Zuazo egiten ari den lanarekin.

## P A N E LUCRÁNDO

ZALDI ERDA

